

Mamu bat gehiago ez zait kabitzen golkoan

Euskaldunon Egunkaria, 1992-03-22: 7.

Euskal Kulturako Sailburuarekin genuen zita herenegun.

EUSKALDUNON EGUNKARIA-k hamabost hilabete bete ditu; Euskal Herri osoko irakurleen besoetan herriz herri egunero maitasunez kulunkatzen duten bitartean, kritikoez neurtu dizkiote pisua, kolorea eta oreka, beste norbaiten semea bailitzen, eta kazetariak eguneroko lantokian udako beroa eta neguko hotza pasa dituzte txintik esan gabe; hemen dena bait da apala eta presaka egina, egunkari berri guztiak bizi dituzte eguneroko presa eta larriak, baina euskaraz idatzia dagoenak gehiago; ez galdetu neri zergatik euskararen bideak hain estuak diren, laguntzak hain laburrak, eta hartzen zaizkion kontuak hain zekenak.

Orain arte lortu den ahalegin minuto hau dena herriari zor zaio; agertu du honek merezi duela egunkari bat bere hizkuntzan.

Izan ere lortu du herri zahar honek, noizbait! Gobernu; gobernu honek estreinatu du plazan egindako dantzetatik kanpoko Kultura saila, estreinatu du honek sailburua, eta, legezko denez, dagokion aurrekontua. Baina euskal kultur bide zabala den EGUNKARIAri erdaldun askoren artean bakarra izanik ez dio sos bat eskeini. Eskatu dugu, bada (eskale egin gaituzte) errespetu handiz. Ezezkoa emateko arrazoirik badu Kontseilariak, ez ustel!: nondik nora jasotako diruak mantentzen dute haurra; ematen ez dituen diruen gure gabeziak ere aztertu behar dituela, eta geuk paperak bata bestearen atzetik eraman ere bai fede onez; akziodunen zerrendak; halere herriagandik jasotako sosen kontuak ez daudela garbi, sosa banan bana, txeketan bota ez dituztelako. Geuk aspaldi, bada urtebete, eskeini genion bada, fiskalaren lana errezago egin zezan gure Administrazio Kontseiluan leku bat; bi nahi izan bazituen ere hartuko genizkion pozik; hara gure izpiritua; baina ez du nahi, sudurraz fido da gehiago; modu zaharrear, susmoak ditu aidean! Geu publizitatea eskatzea ere ausartu egin gara, baina erdal egunkari guztietan ehundaka milioi zabaltzen ari diren bitartean, zergatik geu baztertu? Euskaraz ematen duten publizitatea ere egunkari erdaldunetan sartu, txekeak bezala, eta geuri kontu haundiz aparte utzi. Geuk galdezka, ea zergatik? Baina Kontseilari jaunak: ea nor garen gu geure kontura eta ezer esan gabe (hau egia ez bada ere!) EGUNKARIA sortu eta nolana hasteko!, eta euskal kulturako buruak, orain irrifartsu, geure estuasunak, horiek ez direla berari dagozkietenak. Baina euskal egunkari baten neke eta miseriaz ardurarik ez badu Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailburuak, noren ardurak izango dira bada?

Hiru gizon joan gintzaizkion Sailburuaren tribunalera: Joxemi Zumalabe, Joan Mari Torrealdei, eta neroni, denok euskararen zerbitzuko poetak.

Ez dago errukirik: Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak ez du dirurik "berez sortu zen" egunkari euskaldunari laguntzeko; itxita jarraitzen dute arkak. Publizitaterik ere ez. Ez

du Kontseilariak gure herrirako egoki den egunkaria dela uste; honez kanpo, susmoak jarraitzen dute oraindik gure jokabideaz eta hau da bere azken hitza.

Bi urtean hiru aldiz hartu, eta hirugarren honetan jarri ginen bada geuk itxaropen apur bat, inozente!, baina azken hitza hau da!

Ni ausartu naiz orduan, zaharrena naizelako, esatea: "bi urte zain eduki eta gero gehiegi iruditzen zaidala Sailburuak geureak ondo aztertu eta gero arrazoi garbi bat eman gabe dena ukatzea. Arrazoirik bada, argitan jarri ditzala. Neroni 70 urte betea eta lan apur bat egina, aspertuta nagoela nire aitaz gero geure bizitzan guztian, "rojo, separatista, exiliado, peligroso..." hainbeste urtetan jasan eta gero orain, bigarren Eusko Jaurlaritzaren ahotik beste hainbeste irain entzutea, ez dudala beste "susmo eta mamu" bat gehiago ametitzen, ez zaidalako golkoan gehiago kabitzen; uzten nuela bat batean mahai hura, eta orain arte pertsonalki izan dudan errespetozko isiltasuna amaitzen dudala aurrerantzean prentsa bidez euskal EGUNKARIA defendatzeko askatasuna, eta gure herriko sailak merezi dituen kritikak.

Zeren eta, Joseba Arregik, pertsona bezala, ulertzen dut gure lana bere gustokoa ez izatea, baina ez Eusko Jaurlaritzan Kulturaren Arduradun nagusi bezala.